

INAUTERIETAKO KONPARTSAK

Urtarrilaren 22a baino lehen eman behar da izena

■ Talde bakoitzak zer egingo duen eta zenbat diren jarri behar du ■ Diru laguntzak izango dira ■ Izena emateko paperak udaltzaingoan.



'Mallu' herria zuzen eraman nahirik, iazko karnabaletan. (Argazkia: Biyok)

OTSAILAREN 25ean izango da inauterietako konpartsa. Disfrazak, karrozak... urteroko festa prestatzen hasi dira dagoeneko. Urtero 5-6 bat talde irtetzen dira; aurten

irtengo direnek astelehena baino lehen eman behar dute izena, udaltzaingoan.

DIRU LAGUNTZAK

Seihun eta piko mila pezeta

omen daude denen artean banatzeko. Jende kopurua, karroza, ekintza berezia... hartuko dira kontuan xoxak banatzeko orduan; talde bakoitzaren beharrak, alegia. □

TABERNETAKO BERTSO TXAPELKETA

Txapeldunak elkarren kontra, bihar

■ Sei urteetako irabazleek kantatuko dute ■ Garin tabernan, gaueko 22:30etan.



Hernanin, bertsolariak ohituak daude tabernetan kantatzen.

SAN Sebastian bezperan bertso txapelketa izaten da Hernanin 1995az gero. Tabernetako bertsolariak (asteburuero kalez-kale trebatzen diren horiek) beren plaza izaten dute; entzule eta giro ederrean gainera. Aurten txapeldun guztiak elkartuko dira, elkar neurtzeko: Iurre, Olano, Txuria, Zerain, Tolosa eta Esteban. Plana, berriz, jakinokoa: ondo afaldu, saioa entzun eta Donostira □

Euskadiko lehen Zientzia museoa Miramonen

■ Bihar inauguratuko da ■ Kutxaren proiektua da.

'ZIENTZIAREN Kutxagunea' izena du Miramonen irekiko duten zientzia museoak. *Kutxagunea* zientzia gertutik ezagutu eta bizitzeko zentrua da. Museora doanak 170 esperimentu egiteko aukera izango du eta bi ordu beharko ditu museo osoa behar bezala ikusteko.

(argiari buruzko sekretuak), Mekanika, Zentzumen hunkiberak (burbuinari buruzkoa), Gai berriak, Sistema konplexuak, Osagai baratzta eta *Txiki-klik* (txikiei zientzia grina pizteko aretoa)

BEGIRATOKI ASTRONOMIKOA

36 metro altuko begiratoki astronomikoa du museoak eta bisitariak handikantxe ikusiko dituzte izarrak. Museoa jende guztiarentzat dago zabalik. □

10 KONPARTIMENTU

Museoa 10 ataletan banatua dago: Lur-ontzia (lurrari buruzko guztia), Harremana, Indar-Pindarrak, Argi izpiak

30 lagun Mendiriz Mendiko eski ikastaroan

■ Pon D' Espagnera joango dira datorren asteburuan



Eskiatzaileak, monitorearekin astelehenean egindako bileran

MENDIRIZ Mendiko eski ikastaroa antolatu du, urtero bezala. Joan den astelehenean bukatu zen izena emateko epea eta denera 30 lagun apuntatu dira. Astelehenean bertan egin zuten monitorearekin bilera ikastaroa nola planteatu erabakitzeko.

FONDOA BAKARRIK

Ikastaroa, berez, eski alpino eta fondoa biak egiteko zegoen planteatua. Baina, apuntatu direnek fondoa egitea erabaki dute. Maila, ez dute denek bera, baina, hori ere konpondu dute. Larunbat goizean aterako dira. □

JUBILATU ETXEA

Min fisiko eta psikologikoei buruz, hitzaldia bihar

■ Arantxa Martin psikologoak emango du ■ 18:00etan.



Telemar
ITXASTELE S.L.

Telyco denda
Elkano 13, HERNANI
☎ 943 33 26 00

*Telefonica'ko banatzailea eskusiboa, Movistar, zentralitak, 'Centrex', Telefono altak, Telefonía mugikorra, Faxak, "Via digital",...

Eskaintza berezia:
'Pack Movistar Activa, OT 301' 21.900 pztatik
(10.000 pzta deietan)



GALARRETA JAI-ALAI

FRONTOIA

Galarreta gaina z/g - HERNANI

Gaur arratsaldeko 16:00etatik aurrera erremonte jaialdia:

- ⇒ 1. partidua ZEBERIO III - URKO / ZALAKAIN - ETXEBE II
- ⇒ 2. partidua Txapelketa: ZEBERIO II - AUZMENDI / MATXIN - IRIARTE
- ⇒ 3. partidua ELIZALDE - EIZAGIRRE / ALTUNA I - AIZPURU
- ⇒ 4. partidua KALONGE - MENDIZABAL / BITORIA - ETXEBE III

JANA ETA OSASUNARI BURUZ HITZALDIA

Denetik pixkana jatea da, ondo jateko sekretua

■ Hala esan zuen Teresa Gomez mediku nutrizionistak ■ Antolatzaileek espero baino jende gehiago izan zen Biterin astelehenero hitzaldian: 60 lagun.



Biteriko 'sukaldea' gainezka, 'Jana eta osasuna' hitzaldian.

SEKULAKO ikusmina sortu du, jana eta osasunari buruzko hitzaldiak, anorexia eta bulimiaren gaia dela-eta. Astelehenero bileretan izaten den jendea baino askoz gehiago bildu zen: 60 guraso inguru. Teresa Gomez nutrizionistak bi gauza behintzat garbi utzi zituen: 1) Dieta ona den-

tik duena da. Alegia, zenbait hartu nahi ez dituen jakiak -grasa dutenak, esaterako- ere jan egin behar dira. Neurria da kontua. Produktu batzuk -margarina, esaterako- ia grasa guztia kenduta saltzen dituzte, eta hobe delakoan erosten dugu, grasa ez ezik bere indar guztia kentzen diotela kontu-

ratu gabe. 2) Gozokiak ez dira saritzat erabili behar. Zenbait gurasok umei gozo gauzak ematen dizkiete zerbait ondo egin izana eskertzeko. Orduan, umeak derrepente lotzen du gozoa jokabide onarekin, eta horrek jateko ohitura txarrak sortzen ditu.

AURRERAKO KONPROMISOA

Ume txikiak dituzten gurasoak izan ziren hitzaldian. Gurasoak kezkatuta daude elikaduraren gaiarekin. Txus Congilek esan digunez, jana eta osasunaren kontuarekin jarraitzeko konpromisoa hartu dute: dieta orekatuak, menuak... Aste Santuak eta gero izango da hori.

JANAREN TRASTORNOAK
Anorexia eta bulimiaren bueltan, janak sortu lezazkeen gorabeheri buruzko hitzaldia dago datorren astelehenean. □

ASTEBURUKO EMAITZAK (ESKOLARTEKO KIROLA)



Gimnasia erritmikoko ikasleak, hankak zerura jasota.

■ PELOTA		Langile 3		5		0		Neska infantilak:		Elizatxo A	
Infantilak:		Benjaminak:		Urumea		Mutil kadeteak:		Langile		■ FUTBOLA	
Urumea	0	Urumea	2	Urumea	2	Urumea	1	Andoaingo ikastola	0	Neska kadeteak:	1
Elizatxo	18	Elizatxo B	2	1	2	3	2	3	3	Langile	6
Alebinak:		■ BOLEIBOLA		Lizardi 2		Neska alebinak:		Elizatxo B		Añorga KE	
Elizatxo 3	5	Neska kadeteak:		2		Elizatxo B		1		il	
Langile 2	3	Langile		3		Langile A		2		Landaberri	
Benjaminak:		Barandiaran		0		Neska alebinak:		Langile B		Langile	
Elizatxo 1	3	0		0		Langile B		2		1	

JASOTA BEZALA

MAGIA
Egunkari batean azaldutako artikulu batean kabalगतak sortutako zenbait zurrumuru argitzen dira: kabalगतa egiteko bitarteko gabeziak daude, udalak kabalगतa egin dadin borondatea badu, baina, ez dagokio berari antolatzea.

Hau dena hola baldin bada eta datorren urtean kabalगतik egiten ez bada, Arratibel jaunak argitu beharko du zergatik

izango den udala ez egitearen erantzule. Arratibel jauna hurrengo urtean herritarrek kabalगतan ezin gozatuak kezkatzen badu benetan, ondo. Baina, orduan hobe du errudun bila aritu baino gauza konpontzen saiatu eta 2002ko kabalगतa lotzea.

Haiek (erregeak) ez ziren erregeak izan. Magoak izan ziren, jakituriaren erregeak, ez kontsumoaren erregeak. Eta

opariak ez, erreinuetako ofrendak zaramazkiten. Izarrak irakurtzen zekiten astrologoak ziren; eta beren aurreko jakintsuek igerritakoa garaiak bete zirela irakurtzen zuten zeruan. Misio hartako ginekologo kosmikoak ziren, magia-rik gabeko magoak.

Julen Lizaso -Kronikan euskaratu eta laburtua-

HITZ BITAN



Lagun bat mendiko materiala begiratzen elkarteko lokalean.

✓ MENDIKO MATERIAL AZOKA

Mendiko botak, eskiak, bastoiak, pioletak...
Mendiriz Mendik antolatuta, astelehenez geroztik bigarren eskuko mendiko materiala salgai dago elkarteko lokalean. Azoka txikiak hirugarren urtea du aurten eta iaz baino material gehiago osatu dute. Ostirala arte dago zabalik. Ordutegia: 19:30etatik 21:00ak arte.

✓ 3/4 PLATAFORMA

Gaur zazpietan, kontzentrazioa Plaza Berrin
Hirulaurden herri ekimenak hamabostean behingo kontzentrazioa konbokatu du gaur arratsalderako. Zigorren hiru-laurdenak bete dituzten Hernaniko presoak (Xabier Arnaiz, Joxean Pagola eta Pakito Lujanbio) askatzeko eskatuko dute.

✓ ETXEBIZITZARI BURUZKO INKESTA

Etzi, entregatzeko azken eguna. Hernaniko Udalak herritarren etxebizitza premiak aztertze inkesta egin du. Helburua da, gerora, beharren arabarako etxebizitza plana egitea. Inkestak Kutxan, Laboralean edo Udaltzaingoan utzi behar dira eta larunbatean bukatzen da entregatzeko epea. □

IRRATIAK

(E.M. 99,2): 11:50etan: Biteriko erakusketaren berri: *Antzineko postalak*. 12:15etan: Kirola (aurreko asteburuko eta datorreneko) Rufinoren eskutik. 12:30etan: Atzoko AHTari buruzko hitzaldiaren laburpena.

HERIOTZAK

Sor Encarnacion Oiarbide
Asteartean hil zen 86 urte zituela.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak: 943 556662
►Anbulatorioa: 943 557750

☎ FARMAZIAK

►Egunez: Sagastiberri Urbieta, 7
☎ 943 552941
►Gauzez: Elizondo Andoain. Zumea, 30
☎ 943 592629

IRAGARKI MERKEAK

■ Hernaniko jatetxe batean sukaldaria behar dugu.

☎ 943. 33 02 91

■ Yamaha Meos izeneko motoa salgai: ☎ 679-68 04 73



Laguntzaile:

HERNANIKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuak